

BEZEROARREKIKO HARREREMANAK

Bezeroekiko harremana oso estua da, gure lana ikusten dutelako gure dendan sartzekoan. Gure lana ikustean, prozesu guztia ikusi; bozetuak, lehengaiak ukitu, josteko modua aztertu eta nola joaten garen pieza bakoitza sortzen eta hori ikustean kalitatea konprobatu ahal dute.

Bezeroen beharrei egokitzen dugunez, bezeroek pozik daude gurekin eta bezero finkoak ditugu. Astean behin etortzen direnak edota ezkontzetako bezero finkoak, ezkontza bat dutenean beti familia osoa etortzen da gure arropa erostera.